

TREBAKUNTZA 2014-06: BEZALA, BEZALAKOA

Gaztelaniaren eraginez, sarritan txarto erabiltzen ditugu “bezala” eta “bezalako” hitzak.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *Bost urtez ibili zen Bilbon **irakasle bezala**.
2. ***Zuzendari bezala**, ez dut zertan fitxatu.
3. *Liburua idaztea bidaia bat egitea **bezalakoa** izan da.
4. *Deialdiak eta aktak **bezalako** agiriak euskaraz bidaltzen ditu.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Ad. Ezin dira gaztelaniazko *como* guztiak *bezala*-rekin ordezkatu. Batzuetan, ez da ezer jarri behar:

Bost urtez ibili zen Bilbon irakasle.

2. Ad. Halaber, ez dira gauza bera (-n) *bezala* eta -(e)nez.

Zuzendari naizenez, ez dut zertan fitxatu.

3. Ad. Ez nahastu *bezala* eta *bezalako* hitzak.

Bezalako hitzak NOLAKOA galderari erantzuten dio, eta **bezala** hitzak, ordea, NOLA galderari.

Kontuz ibili -*tzea* bukaera duen sintagma bat badugu. Euskaltzaindiaren iritziz, badirudi nominalizazioak ezin duela *bezalakoa* hartu, *bezala* baizik:

Liburua idaztea bidaia bat egitea bezala izan da.

4. Ad. Gero eta sarriago entzuten dira honelako esaldiak:

**Deialdiak eta aktak bezalako agiriak euskaraz bidaltzen ditu.*

Hobe hala nola, besteak beste edo esaterako esapideak erabiltzea.

*Zenbait agiri euskaraz bidaltzen ditu, **hala nola, deialdiak eta aktak.***

*Zenbait agiri euskaraz bidaltzen ditu, **esaterako/besteak beste, deialdiak eta aktak.***

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99